

Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2000ko irailaren 14an ● 197. zka.



Laster arte Felix

Iturririk iturri: Lau atxabaltar Cuban • Iritzia: Nuria Agirre • Kirolak: Mikel Gomez



AZKARATE AROZTEGIA

ARETXABAETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

**Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak**

ARDATZA
Brikolaketa

*Irudimenarekin, eskulanak egiteko
kutxak, kajonerak, bandejak,
pertzeroak, komuneko altzariak...
margotu ditzakezu. Eta nahiago izanez
gero, geuk margotuko dizkizugu.*

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

b **berbetan**
HIZKUNTZ ESKOLA

HELBIDE BERRIA:

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA

Belorrieta, 4

20550 Aretxabaeta

Tel./Fax: 943 79 00 69

Bulego ordutegia: arratsaldeko 4etatik 7etara

Ingelesa

Frantsesa

Alemana

Maila guztiak

(First Certificate of Cambridge, ...)

Klaseak goizez eta arratsaldez

Adin guztiak

2000 - 2001 ikasturtea
MATRIKULA EPEA: IRAILAREN 11tik 25era

Haur dantzarien egunak indarra galdu duela uste duzu? Dantzaririk hartzeko ohiturarik baduzu?



Maria Agirre

Nik uste dut baietz. Ni dantzari izandakoa naiz, eta jende asko etorren zen plazara umeak batzera. Guk ere orain bi urte arte hartu izan ditugu dantzariak.



Bernabe Makazaga

Agian bai. Gero eta jende gutxiago animatzen da umeak bazkaritarako hartzera. Dena dela, monjetara urte bi dira dantzaririk eraman ez dutela.



Arritxu Altuna

Egia esan ez dakit, azken urteotan ez gara hemen egon izan egun horretan. Gu baserrian bizi garenez, ez da umeak hartzeko ohitura egon gurean.



Ramon Perez de Labeaga

Azkenaldian indarra galdu duela uste dut, familiek gero eta dantzari gutxiago hartzen dituztelako izan daiteke hori.

ESKUTITZA

EUSKAL NORTASUN AGIRIAK GERTU

Aurreko batean esan genizuen bezala, Aberri egunean egin ziren Euskal Nortasun agiriak jasotzeko gertu daude. Horretarako Aretxagazetara zuzendu zaitezke, agiria egin zenuten guztiok. Gure ordutegia goizez 9:00etatik ordu 1era eta arratsalde, 15:00etatik 18:00etara da.

Bestalde, egun horretan Azatlan bazkaldu zenutenok, taldeko argazkia jaso nahi izanez gero, Aretxagazetan jaso ahal izango duzue.

Aretxabaletako Aberri eguna taldea

Aretxagazeta

197. zenbakia
2000ko irailaren 14a.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzaileak:
Aitor Urrutia.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Azaleko eta erreportaje argazkiak:
Alberto Inurrategi.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila



Bazkide txartel berriak egin behar dira liburuen mailegua ordenagailu bidez egiteko.

Berrikuntza ugari udal liburutegian

Berrikuntzaz beteta dator liburutegia opor ostean. Liburutegiko informazio guztia ordenagailu bidez erabiltzeko moduan jarri da eta laster itxura aldetik ere berrikuntzak etorriko dira. Aldaketekin zerbitzu hobea eskaini gura da.

Informatizazioa

Informazioa ordenagailu bidez erabiliko denez hemendik aurrera, bazkide txartel berriak egin behar dira. Liburutegitik pasatuz gero, dohain egiten dituzte, norbaitek, gainera, etxean libururen bat baleu-

ka txartel zaharrarekin hartuta, mesedez lehenbailen pasa dadila liburutegitik bazkide txartel berria egiteko. Gehiegi luzatuz gero, karneta ateratzeko eskubidea galtzeko arriskua ere badauka.

Liburu mailegua ordenagailu bidez egingo da, baita liburuen kontsulta ere. Horrela liburu bat hartuta dagoen edo ez jakiteko aukera egongo da eta liburu horren erreserba egitekoa ere bai. Maileguen luzapenak egin daitezke, 3 aldiz, bakoitza hamabost egunez. Liburutegiari bu-

zuzko informazioa ere jasoko da ordenagailu bidez: ordutegia, liburu berrien zerrendak... Internet bidez kontsulta egiteko aukera ere badago:

liburutegia@aretxabaleta.net

Bazkideentzat arauak

Bazkideentzat lehendik zeuden arauak ez dira aldatu, hori bai, bat edo bi gehitu dira. Aipagarriena bazkide txartela galdu edo apurtuz gero 500 pta. ordaindu beharra da. Arauen zerrenda jakin gura duenak, liburutegian bertan eskuragarri dauka.

■ AURRESKOLAKO KONKURTSORAKO BALDINTZAK ONARTU ZIREN

Uztailean egindako azkenengo osoko bilkuran aurrekolako barne arautegia eta konkurtsorako baldintzak onartu ziren. Udalak jarritako baldintzen artean lizitazio prezioa 4 milioikoa izatea da eta esleipena, oster, urte betekoa, lau urtera luzagarria. Aurrekola eramango duen enpresa hartzeko orduan esperientzia, aurkeztutako proiektua, eskaintza ekonomikoa eta beste hainbat baldintza hartuko dira kontuan.

Udalak ezarritako barne araudiaren arabera, beste instituzio batzuetatik lortutako diru laguntzak aurrekolarentzat izatea, arazo ekonomikoa dituzten familientzat prezio bereziak jartea eta atxalbatarrek lehenasuna izatea daude.

■ ILARGI PLAZAKO UDALAREN LOKAL KOMERTZIALAK ENKAN-

TERA Udalak Ilargi plazan dituen lokal komertzialak enkantera ateratzea onartu zuen uztailearen 26an egindako osoko plenoan. Guztira 150 m²tik gorako neurriak dituzten lokalen hasierako prezioa, 20 milioi ingurukoa izango da.

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

*Etxabe
harategia*

Durana 4
☎ 943 79 16 61



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

Hasi dira parrokia konpontzeko lanak

Joan zen astean hasi ziren Aretxabaletako Andre Mariaren Zeruratzeko Parrokiaren berrikuntza lanak. Kanpandorreko bedarrak kendu eta tximistorratza jarriaz hasi baziren ere, obra luzea izango da irailean hasi eta 2001eko maiatza artekoa. Kostua ere ez dauka nolana hikoia, 98 milioitik gorakoa.

Kanpoko itxura

Parrokiako eraikuntzaren egoera ez da batere ona: teilatua, teilatua eusten duten estrukturak eta teilatuko urak batzeko kanalak


egoera larrian daude. Euria egiten duenean edozein lekutan sortzen dira itoginak. Kanpoaldeko hormak ere itxura berritu behar daude, kanpandorrearekin batera. Antonio Astigarraga parrokoaren esanetan kanpoko hormen eraberritzea ez da gehiegi nabarituriko diputazioko teknikariek ez dutelako margotu edo harria ateratzen uzten.

Kanpoaldeko obra, parrokiako aretoaren konponketarekin batera, abendura bitartean egingo da. Guzti honek, ia 59 milioiko gas-

tua izango du.

Barrualdeko konponketak

Elizaren barrualdea, ostera, egoera txarrean egon ez arren, konponketa batzuen behar dago. Megafonia sistema zahartuta dago, fokuak haundiegiak dira eta era berean argitasuna ez da egokia, berogailu sistema garbiagoa jarri gura da eta elizako hormak hobeto entzuten lagunduko duten materialekin txukundu eta margotuko dira. Honekin batera, parrokiako lokalak ere konpondu gura dira, sakristia, karrajoa eta bulegoak.



Bigarren atal honek 2001-eko urtarriletik maiatzerarte iraungo luke eta 39 milioitik gorako aurrekontua du.



Maiatzerarte iraungo dute parrokiako obrek eta 98 milioiko aurrekontua du.

Diru laguntza eskaera

Gastu hauei nola aurre egin ere pentsatuta dauka parrokiako ekonomia sailak. 17 milioitik gora altxortegian daude; erakundeek: Udala, Gotzaitzia eta Foru Aldundiak guztira 43 milioi emanango dituzte eta ia 8 milioiko mailegua eskatuko da banketxean bost urtean ordaintzeko. Falta diren 30 milioiak atxabaltarrei eskatuko zaizkie mailegu, donatibo edo kuota moduan. Hori dela eta hainbat lagun etxez etxe ibiliko da datozen egunotan obren berri ematen duen txostena banatu eta laguntza eskatuaz.

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

Domekan haurren eguna

Urtero letxe aurten ere irai-lean haur dantzarien eguna ospatuko da, domeka hone-tan hain zuzen. Aurten, ordea, aurreko urteetan baino ume gutxiago batuko da, talde batzuk ezetza eman dute eta. Kanpotik 5 talde egongo dira Arrasateko "Lore Gazteak" eta "Txikitxu", Oñatiko "Oinatz", Soralu-zekoa eta 5.a atxabaltarra "Loramendi dantza taldea".

Kaleko ekitaldiak

Goizeko 10,30ean herriko plazan elkartuko dira umeak eta otartekoa emango zaie ekitaldia indartsu hasteko. Kaleetan zehar bueltatxo eman ostean, taldeetan banatu eta Mitarte plazan, Gernika plazan eta herriko plazan egingo dituzte dantza saioak. 1,30ean herriko plazan batuko dira ume guztiak bazkaltzera joateko. Antolatzaile eta arduradunak orain arte elkarte gastrono-

mikoetara joan badira ere, aurten, gutxi izanda, Taberna Berrin egingo dute bazkari pasada. Arratsaldeko 5etan, barriro buelta plazara alardea dantzatzeko eta 6,30ak inguruan bukatutzat emango da aurtengo haurren eguna.

Jaiak gero eta indar gutxiago

Mirian Priego antolatzailearen esanetan, orokorrean, herri guztietan egin du behera jai honek eta Aretxabaletan ere halaxe gertatu da. Herritarrek gero eta gutxiago parte hartzen dutela dio "oso jende gutxi etorten da dantza saioak ikustera, sarritan umeen gurasoak baino ez, eta gero eta jende gutxiago dago prest umeak etxera eramateko bazkaltzera". Norbaitek bazkaltzera eramanez gura izanez gero, bete beharreko pape-rak Eroskiko bi dendetan eta Gurea tabernan daude.



Aurten aurreko urteetan baino talde gutxiago etorriko dira

FOTO

Urkiola

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA

**Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak**

**Albunak
Argazki kamarak
Markoak...**

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

HAURRAK



Umeendako
moda

Lezama merkatal
zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ARETXABALETA



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



ERAIKUNTZA ARLOKO LANBIDE HEZIKETA BERRIAREN AURKEZPENA

Joan den irailaren 5ean "Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa" lanbide heziketa berriaren aurkezpena egin zen Arizmendiko egoitzan. Prentsaurrekoa Felix Ormaetxea Arizmendiko zuzendariak gidatu zuen eta parte hartzaileen artean proiektuaren kolaboratzaile eta sponsoreak egon ziren: Deba Goienera, Ascongi eta Construcciones Sukia. Guztiek ideia bat garbi utzi nahi izan zuten, eraikuntzan dagoen langile kualifikatuen eskariari erantzuna emango diola ikasturte horrek.

Ikasturtea Almenen emango da. Irakasleak, 2 aparejadore, topografo bat eta enpresa lizentziatu bat dira. Momentuz hamabost bat ikaslekin hasiko da ikasturtea baina oraindik norbaitek apuntatu nahi izango balu denboraz dago. Kurtsuaren arduraduna, barrez, Jesus M^a Urkizu da.



Alberto Sanzek egingo du Zaraia zinema eta kultur etxeko proiektua.

Zaraia zinema konpontzeko proiektua egiten hasiko da

Uztailaren 26ean egin zen ohiko plenoan, Zaraia zinema eta kultur etxea konpontzeko proiektua nork egin erabaki zen. Bost gabinetek aurkeztu ziren deialdi honetara eta prezioa, esperientzia eta beste hainbat baldintza kontuan izan ostean, Alberto Sanzi ematea onartu zen.

Alberto Sanzek oso

proiektu zehaztua eta landua aurkeztu zuen eta etxebizitzaren berrikuntzetan esperientzia dauka. Sokorro Unanue eta Jose Antonio Zubizarreta zinegotziak bere lan lekuan izan ziren egindako lanak ezagutzeko eta ikusitakoaz oso pozik etorri ziren. Proiektua egiten hile honetan bertan hasiko da Alberto Sanz arkitektoa.

SARETXOK BIGARREN IKASTAROA ANTOLATU DU

Saretxo elkarteak informatikaren gaineko bigarren ikastaroa antolatu du. Uztailan egin zen lehenengo, Saretxon dagoen materiala ezagutu eta erabiltzen ikasteko, hain zuzen. Bigarren honetan Office osoa eman gura da: Power Point, Excel eta Acces.

Irailaren 16an emango zaio hasiera ikastaroari eta hilabeteko iraupena izango du. Zapatu goizetan emango da goizeko 9etatik, ordu bata bitartean. Bazkideek 1.000 pta. ordaindu beharko dute, bazkide ez direnek, ostera, 5.000 pta.

Saretxoko kideek aldaketa batzuen berri ere eman gura dute. Batetik, dominioa aldatu da, lehen jeteikin zena orain euskaltelekin da eta saretxo.net izan beharrean saretxo.org da. Bestetik, router bat erosi da. Beraz, egokitzaileen lanak bukatutakoan edozein ordenagailutatik sartu ahal izango da internetera eta ez bakarretik lehen bezala.

Bukatzeko barkamena eskatu gura zaie Saretxoko bazkideei eta erabiltzaileei oportetean izan diren arazoak momentuan ezin izan dituztelako konpondu.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETAK

Zuzendaria:

Lyonel
Arquero

Dekorazioa:

Soraya
Arquero

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea
943 79 81 78 ARETXABALETAK



■ **90 URTE OSPATZEKO MERIXENDA** Anita Galdos-ek 90 urte bete zituela eta aparteko zerbait egin guran, merixenda pasada ederra egin zuen emakume kuadrila honek aurreko egun batean. Zorionak eta hurrengoan ere horrelaxe egin. Bertan: Modesta Arenaza, Pilar Gabilondo, Begoña Arenaza, Begoña Arana, Isidora Garciaetxabe, Maria Beitia, Joxepa Errasti, Anita Galdos, Rufina Gaztañaga, Isabel Garciaetxabe eta Katalina Gabilondo.

Bi bikote urrezko ezteiak ospatzen

1950. urteko abuztuaren 12an ezkondu ziren Esteban Gorroño eta Mari Aldai Aretxabale-tako parrokian. Burgalesean eztei-bazkaria egin eta Bilbo aldera joan ziren bidaiari.

Ez da gero edonor urrezko ezteietara heltzen eta hau os-

patzeko irailaren 2an meza izan zuten Mendiolan, eta bazkaria Matikun. Hiru seme-alaba eta lau ilobez gain anai-arreba eta lobak ere elkartu ziren bertan, 63 lagun guztira. Bazkal ostean, Esteban eta Marik aho zabalik utzi zituzten gonbidatuak tangoa dotore baino dotoreago dantzatuaz.



Valentín eta M^a Luisa

Ez dira ordea, urrezko ezteiak bete dituzten bakarrak izan, irailaren 9an Valentín Etxeberria eta M^a Luisa Uribesalgo ere 50 urte egin zituzten. Ospatzeko Leten izan zuten meza eta ostean bazkaria Lasan. Zorionak bikote bie!



ONGI ETORRI ARETXABALETARA

Aretxabale-tako hegoaldeko sarreran, Eskoriatzatik etorrira, ongi etorri kartela jarri du Deba Goieneko Mankomunitateak. Bergara eta Arrasaten ere badaude eta Eskoriatzan datozen egunetan jarriko da. Kartel horretan herriko toki esanguratsuenak agertzen dira, Aretxabale-taren kasuan Urkulu eta Parrokia ingurua.



Parkak,
alkondarak,
prakak, berokiak
eta trajeak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

*Saioa Arando,
Aitziber Arrese,
Arantzazu Arroiabe
eta Mikel Iturbe
Kuban izan dira, eta
berakatzei kirtenak
kendu bitartean
bertako jendea eta
bizimodua ezagutze-
ko aukera izan dute.
Hona hemen Kubari
buruzko euren
ikuspegia.*



Lau atxabaltar Kuban lanean

■ **Kubako zein tokitan egon zarete?**

■ Lanean, Quivican izeneko herri batean, Habanako probintzian eta oporretan Pinar del Rioko probintziara joan ginen.

■ **Nolatan lanera?**

■ Lanera, lanera, ez gara joan. Euretako bat izan gura genuen, euren bizimodua ezagutzeko. Bertako ikasleak urtean bi hamabostalditan borondatezko lanean aritzen dira eta geu ere hortantxe ibili gara. Lanerako jende beharra dagoelako behintzat ez gara joan.

■ **Zein lan egin duzue?**

■ Fruta eta berdurak ozpintan kontserbatzen dituzten enpresa batean egon gara eta gure lana berakatzei kirtenak kentzea zen. Goizeko 8etatik eguerdiko 12ak arte lan egiten genuen, tartean hamarretakoa jan, inguruko zuhai-

tzetatik frutak hartu, berriketan egin... Ez da batere lan astuna izan.

■ **Zein izan da zuen helburua?**

■ Gu bertako sistema ezagutzera joan gara. Munduan geratzen den herri komunista edo sozialista bakarrenetakoa da eta nola bizi diren ezagutu gura genuen. Sistema honi gauza on asko topatu dizkiogu, baina baita beste batzuk harritu gaituztenak ere.

■ **Jendea konforme bizi da?**

■ Denetik dago, baina gurekin egon direnak, sistemaren aldekoak, bai. 1993an askoz okerrago egon ziren eta orain hobetuaz doa egoera: jan gehiago daukate, petrolio gehiago dagoenez, garraioa ere hobetu egin da... beraz, okerrera pasatu dela uste dute. Bizitzeko oinarritzakoa, gainera, badaukate: janaria, lo egiteko lekua... Hala eta guztiz, turismoarekin kontaktuan

dauden herrietan jende gehiago dago sistemaren kontra.

■ **Zer gustatu zaizue?**

■ Daukaten kultura maila ikaragarria, jendea oso atsegina da eta oso ondo berba egiten dakiena. Hezkuntza eta osasuna ere miresgarriak dira, baina batez ere Kubak herri bezala aurrera jarraitzeko daukan indarra. 1993an erabat geldituta egon zen herria eta nola izan diren gai aurrera egiteko sinistezina da. Edalontzirik, adibidez, ez dago, baina papera eta argizariarekin moldatzen dituzte eta gero birziklatu egiten dira, noski.

■ **Gustatu ez zaizuenik?**

■ Estruktura militararekin ez gaude oso ados. Gu insumisio mugimenduko belaunaldia gara, beraz, guretzat ez da samur ulertzekoa. Egia da, ordea, orain 40 urte arma

bidez lortu zutela independentzia eta ordukoak daudela oraindik goian, beraz, euren pentsakera militarra izatea ulertzekoa da.

■ **Kanpoko laguntzen beharrik badaukate?**

■ Gu harrituta geratu ginen eurak bizi diren moduan bizita kanpoko herriei ematen dien laguntza humanitarioarekin. Medikuntzako unibertsitate esaterako Hego Ameriketako ikasle ugari joaten da. Ikasketa guztiak doan dituzte, baita mantenua ere, eta baldintza bakarra ikasketak bukatzean lanera leku pobretara joatea da. Txernobilgo jendearentzat, bestalde, herri oso bat egokitu dute bertara joateko. Kanpoko laguntzei ez die ezetzik esaten, baina hori gabe ere Kuba aurrera doala? seguru. Botikak esaterako, blokeoa dela eta, gutxi dituzte, baina, inor ez da hil botika falta dela eta.

Jaiak direla eta

San Migelak ate joka ditugun honetan, Andramaixetara joko dut nik. Badakit askorentzat aurtengo Andramaixak atzean geratuko zirela, baina herrian laster festa giroa izango dugunez jaiak hartuko ditut berbagai.

Aurten ere Andramaixetako egitarauan berri gutxi. Urtero antzeko egitaraua errepikatzen da, eta ez nuke hau zentzu txarrean inork interpretatzerik nahi. Ia herri guztietan gertatzen den moduan, Aretxabaletan ere badaude ekintza kontsolidatu batzuk, hau da, nolabait ohitura bihurtu direnak, eta ondo deritzot horiek urtero jaietako egitarauan euren lekua edukitzeari.

Horietako bat sokamuturra dugu. Lehen jaietako hirugarren egunean bakarrik egoten zen sokamuturra. Gerora, arrakasta zuela eta, bigarren egunean ere sokamuturra jarri zuten. Dударik ez, jende asko erakartzen du sokamuturrak, baina niri aurreko urteetan bezala, aurten ere zezen enpatxoa geratu zait. Arrakastatsuak diren ekintzak ugaritzeak arrisku bat izan dezake, beharbada azkenerako aspergarri bihurtzen direla. Eta nire ustez, horixe da sokamuturrarekin gertatu dena. Hau jakina, nire iritzia baino ez da, baina honen inguruan bada nolabait salatu nahiko nukeen zerbait. Ondo iruditzen ez zaidana zera da: sokamuturrak beste ekintza batzuk baldintzatzea, eta hauxe izan da hain juxtu aurten gertatu dena.

Andramaixetako hirugarren eguna. Eguerdiko hamabi t'erdietarako umeendako Hankagorri taldearen "Petrikiloak eta alkatea" antzezlan zegoen aurrikusita Mitarte plazan. Baina goizean hasi zen sokamuturra ordubata t'erdirak arte luzatu zen, eta ondorioz umeendako ikuskizuna ordu erdi eskaxean geratu zen. Nahiz eta Hankagorri taldea obra osoa antzetzeko deitua izan, eurek azaldu zuten moduan, sokamuturra luzatu zelako obra moztu behar izan zuten eta ordu erdiko emanaldia eskaini. Urtean zehar ez ditugu izaten ba umeendako ekitaldi asko, eta behin zerbait erakaragarria egongo eta hori ere moztu behar zezentxoan kulpaz.

Nuria AGIRRE



LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABALETA



GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



Mendizale haundi baten agurra

Felix Iñurrategik agur esateko asti barik aldegin zigun. Bizitzak, gutxien espero genuenean eraman zuen. Hala ere, bere bizitzako 33 urteak ez dira alperrik pasatu. Bizitzak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen jakin du. Bere helburueta-ko bat, munduko gailurrik altuenak ezagutzea, lortu du.

Aretxagazeta 1992an sortu zenetik, bere orrialdeak behin eta berriz bete dira bi anaien proiektu,

lorpen eta herriak egiten zizkien ongi-etorri beroekin. Hala ere, gaurkoa moduko erreportajerik idatzi beharko genuenik ez zen gure burutik sekula pasatu.

Ondorengo orrialdeetan Felixi gure omenalditxo hau eskaini nahi izan diogu. Gugandik urrun joan zaren arren, zure oroitzapenak gure artean jarraituko baitu.

Adiorik ez, gero arte Felix.

2000ko uztailearen 28an etxafleroak bota ziren herrian eta Inurrategitarrek mendi bat igotzen zuten bakoitzean gertatzen zen bezala, herrian berehala zabaldu zen GII-ko gailurrera iritsi zirela. Ordu batzuk beranduago ordea, notizi tamalgarria iritsi zen Himalayatik, Felixen heriotzarena. Ezbeharra jaitsieran gertatu zen, I. kanpamendua begi bistan zutela. Felix 400 metroatik behera amildu zen. Ez zegoen ezer egiterik, Felix GIIaren magalean gelditu zen betirako.

Aurtengo itzulera desberdina izan zen, Alberto bakarrik etorri zen, eta garbi azaldu zuenez, orduan hasten zen bere eskaladarik gogorrena.

Bizitza laburra baina helburuz betea

1967ko apirilaren 1ean jaioa, hiru anai-arrebetatik zaharrena zen Felix.

Beste mutiko askori bezala kirola egitea gustatzen zitzaion gaztetan, mendira joatea eta eskalatzeari zuten gogoko.

Erañako eta Atxarteko hormak eskalatzeko hasi


zen. Gero bertako mendien edertasunaz gozatu ondoren, eta artean 2. BUPen zegoela, Pirineotako mendiak ezagutu zituen, bere lagunekin batera. Bere mendirako grina gero eta haundiagoa izanik, Alpeetako mendi garaiek berehala erakarri zuten. Tartean Felixek Iruñean Ingeñari agronomo ikasketak bukatu zituen, eta hortik urte gutxi barru, Himalayako mendietara lehen espedizioa egin zuten bi anaiek.

Hortik aurrera mendiko espedizioak bata besteari atzetik etorri ziren. Mendian ez zenean, ordea, amak egindako plater gozoak estimatzen zituen Felixek. Era berean, martizetan lagunekin egon eta mus partida bat botatzeko denbora ateratzen saiatzen zen.

Felix eta Alberto beti elkarrekin

Felix eta Alberto beti elkarrekin ikustera ohituta geunden. Zein zaila den orain bata bestea gabe imajinatzea.

Orain hamar urte Himalaya aldera lehen aldiz



Euskal mendizaletasuna urratuta

Felixen agurrarekin Euskal Herriak mendizale maitatua galdu du. Rafa Etxabek kontatzen zigun moduan, bikote perfektua zen. Elkarren artean lan armonizatua egiten zuten bi anaiek. "Felix tentatzailea zen, ideiak botatzen zituen. Era berean komunikatzaile bikaina zen". Mendian aurkitu zuen afizioa eta baita ofizioa ere; mendizale profesionala bihurtu zen arte.

Zeresanik ez, zuhurtasuna eta segurtasuna aurretik izan dituzten bikote horrek, goian utzi du euskal mendizaletasuna.

Orain dela urte batzuk, hamahiru bat edo, jaio nintzen zu bezalako gazteen ilusioaz. Ez zen erraza izan. Urte gutxi nituela, zu eta zure anaiak nire izena eta gure herriarena mundura zabaltzen hasi zineten. Munduko mendirik garaienekiko joera hartu zenuten eta guk banaka-banaka, zuek bisitatutako mendiak eta ezagututako pertsonak ezagutu ditugu. Gailur eta bailara zoragarri horiek askori amets egitea eragin digute. Mendiari errespetoa eta maitasuna izaten erakutsi diguzu. Toki eta pertsona horiek gogoratzean zu ere gogoratuko zaitugu. Nire istoriaren parte garrantzitsua zara. Eskerririk asko Felix eta geroarte; mendi gailurrean ikusiko dugu elkar.

Murruxiko Mendizale Elkarte

Felix eta Albertokin lehen harremana kartzelan negoela izan nuen. Artean ez nituen ezagutzen, baina Makalutik postal bat bidali zidaten. Gure harremana kartzelatik irten nuenean sendotu zen; Felixek furgoneta bat erostetik, lagun arteko lan talde bat sortzeraino. Bi anaiek mendiak igotzen jarraitzeko ideia garbia zuten, han eta hemen ateak jo genituen. Lan komertzialaz gain, lagun onak izatera iritsi gara. Hainbat lekutara joan izan gara elkarrekin, eta momentu on asko pasa ditugu. Egia esan, ezin dut sine-tsi gure artean ez dagoenik, espedizio batean dagoela pentsatzen dut, ez baitut bere gorpua ikusi. Berba gutxitan, Felix alaia zen, irekia eta aurrera begiratzen zuena.


Rafa Etxabe

joan zirenetik, poztasun ugari eman digute bi anaiek: hamabi zortzimilako, hain zuzen. Felixek 23 urte besterik ez zituela artean eta Albertok 22, lehen agerraldia egin zuten Himalayan. Pumori mendira joan ziren lehen espedizio hartan. Lana gogotik egin zuten bi anaiek lehen espedizio hartako dirua lortzeko, kamisetak saldu, sponsorrak lortu... Munduko gailurretara iristeko zuten grina eta ilusioak proiektu berriak ekarri zizkien hurrengo urteetan. Joan den hamarkadan ia urtero igo zuten mendiren

batara, eta bitara ere bai batzuetan.

Aurtengo nahia, barriz, gelditzen zitzaizkien lau zortzimilakoetara iristea zen. Horien artean Manaslu udaberrian lortu zuten, eta GIIa elkarrekin egin zuten azken igoera izan zen, hamabigarren zortzimilakoa, hain zuzen. Felixek ezingo du bere helburuetako bat lortu; berau lortzeko bidean, "bere Himalayak" irentsi baitzuen 33 urteko mendizalea.

Agur esan barik joan da, baina Felixek atxabalarron artean jarraituko du. Laster arte Felix.



INURRATEGI ANAIEK LORTUTAKO ZORTZI MILAKOAK

1- Makalu	8.463 m.	30/09/91
2- Everest	8.848 m.	25/09/92
3- K2	8.611 m.	24/06/94
4- Cho Oyu	8.201 m.	11/09/95
5- Lhotse	8.516 m.	27/09/95
6- Kangchenjunga	8.586 m.	06/05/96
7- Shisha Pangma	8.027 m.	11/10/96
8- Broad Peak	8.047 m.	13/07/97
9- Dhaulagiri	8.167 m.	22/05/98
10 - Nanga Parbat	8.125 m.	29/07/99
11- Manaslu.....	8.163 m.	25/04/00
12- Gasherbrum II	8.037 m.	28/07/00

Felixentzako eskutitza:

Santa Kurtzen kaniketan, Porruko Txaran kolunpixua, kirkil-zuluetan buelta eta jira, bakarren bat noiz harrapauko, Kurtzebarriko edurretan lau lagun, Fatxako tontorrien kaka mutiko batzuk, Almeneko txuletak, Zelai Haundiko denda eta pontxea, Lexargarateko aterpetxeko sua eta ke usaina, Alpeetako trabesia, izoztutako behatz puntak, Artanoko mus-saioak, izotz puska arteko "hotela", Barajaseko bidaiak, Gatzagako afarixak, Elantxobeko portuko busti-aldixak, Mondragoeko goizaldeko ordu txikinak, Soluetako pinpon jarri berrixa, urteroko txiste sortia, hurrengorako proiektuak eta izerdialdixak.

Askotan atzera eta aurrera, prixaka, dana in guran; hamaika erabaki, milaka kilometro abioien, kotxien, bizikletan, takarra-

ran, baina mendixen babesera fan eta lasai egoteko ilusiñuaz beti.

Indakuz gogoratzia gauza edarra dok, aurrera nundik jarraitu jakiteko baldin badok. Horreik danak jabixat buruen bueltaka.

Beti aguro hartzen hian lo, "ondo lo in" esateko asti barik, eta oinguen be, agur esan barik fan haiz; horregatik idazten dustat: "ikusi arte" esan bihera neukan, kantu baten dixuenez, heriotzak elkartu gaitzan arte.

P.S.: porteatzailearentzako oharra: eskutitz hau G2ko beheko kanpamentutik gertu utzi; etorriko da bila, edurra egiten duen batean.

Joseba Urkia (koadrilakoa)



Gimnasia

Kirol jarduera ugari kirole-txean. Ikasturte berriarekin batera kiroleak hainbat kirol egiteko aukera eskaintzen du. Alde batetik gimnasia mota desberdinak daude: mantentze gimnasia, 3. adinekoena, Atzegikoena eta terapeutikoa. Bestetik, aerobica, igeriketa, aquagym-a, karatea, eta igeriketa egokitua ere badaude. Jarduera guztiak irailaren 18tik aurrera jarriko dira martxan. Orduetgia eta egunei dagokienez, egokiena kiroletxean galdetzea da.




Piraguismoa

Datorren asteburuan Gallegora urteera piragua zaleentzat. Murruxiko mendi elkarteko piraguismo sailak piragua urteera antolatu du Gallego (Hueska) ibaira. Urteera datorren asteburuan egingo da, zapatu eta domekan barne. Piragua zaleetuek erreka zoragarri horretako urekin gozatzeko aukera ederra izango dute. Beraz, asteburuan Gallegora joango zaretenok ondo pasatu.



Pilota

Ibon Errasti Lezoko finale-ra. Ibon Errasti eta Larra-mendi bikoteak Lezoko txapelketako finalera iristea lortu dute. Orain finala daukate aurrez aurre eta partidua gaur, eguena, jokatu dute Lezon Ajesta-Navaroren aurka. Txapelketan zehar ondo aritu da bikotea, eta finalean garaile ateratzeko aukera haundiak dituzte. Pilota kontuekin jarraituz datorren hilaren 24an Gipuzkoako klub arteko txapelketa hasiko da.



Xakea

Udan ere xakean burubela-rra. Udan Euskal Herriko hainbat txapelketetan izan dira herriko xake jokalaria. Alde batetik, Donostiako Aste Nagusiko Groseko torneoan hartu zuten parte. Fran Miguel 5. postuan gelditu zen. Bestetik, Bilboko Aste Nagusiko txapelketan Fran 16. izan zen, eta eta Aitor Alcaide, barrez, bi postu atzerago sailkatu zen. Bukatzeko, Lesakan jokatu-takoan, Franek emaitza bikaina lortu zuen, 6. postuari eutsiz.

Tramankulu horia hartu eta alde batetik bestera dabilta Mikel Gomez eta Iñigo Lizarralde. Beraiek egindako goitibehera da, eta Euskal Herriko ligan hartu dute parte. Lehen aldia izateko, bikain ari dira, gainera.

■ **Nondik nora goitibeheretan ibiltzeko afizio hau?**

■ Ideia kasualitate hutsa izan zen. Iñigok eta biok batera egiten dugu lan, eta goitibehera antza zuen tresna batena berbetan ari gine-la, lagunak goitibehera bat egin behar zuela komentatu zuen. Hurrengo ideia, Euskal Herriko ligan apuntatzea izan zen.

■ **Nola doa goitibehera liga hori?**

Ba... oso ondo, uste dut lehengo goazela. Aurre samarrean ibiltzen garenok zazpi bat gara. Maila altua dago.

■ **Ez da arriskutsuegia?**

■ Apur bat bai. Goitibehera gainean zoazenean ez zara arriskuaz jabetzen, baina ondoren bai. Kontuan hartu, 115 kilometro orduko abiadura ere hartu izan dugula

inoiz. Errespetu haundia ematen du.

■ **Ausart samarra izan beharko da horrelako abiadura hartzeko?**

■ Nire lagun batek esaten zuen moduan, goitibeheran ibiltzeko edo zoroa edo mozkortuta joan behar da.

■ **Sustorik izan duzue?**

■ Andoaineko karreraren behar baino azkarrago sartu ginen kurba batean, eta ezusteko bat izan genuen.

■ **Euskal Herrian karrera asko egiten dira?**

■ Aurten oso gutxi izan ditugu. Iaz partehartzaile bat hil zen, eta horregatik aurten oso proba gutxi antolatu dira. Ligatik kanpo karrera asko daude. Arrasaten, iparraldean, Gernikan, Zallan. Arrasatekoa onenatarikoa da.

■ **Eta hurrengo karrera?**

■ Hilaren 16an Bergaran egingo da ligako azken goiti-

behera jaitsiera. Ondo ibiltzea espero dugu, gainera, Iñigo bergararra denez, hasita dago bidea aztertzen. Irabazteko aukera haundiak ditugula uste dut, baina ikusiko da.

■ **Eta horren ondoren deskantsua?**

■ Badaukagu beste ilusio bat, Bartzelonara joatea. Montjuic-eko goitibehera jaitsierara joan gura dugu.

■ **Nola entrenatzen duzue?**

■ Ikerlanen lan egiten dugu eta Olandixoko aldatzak era-

biltzen ditugu entrenatzeko. Hala ere, aspaldi ez dugu entrenatu.


■ **Euskal Herrian afizio haundia dago?**

■ Ematen duena baino gehiago. Bizkaialdean zaletu asko dago eta Hernanialdean ere bai. Hemen bailaran Aramaioko Larrañagatarrak eta gu baino ez gara ibiltzen.

■ **Goitibeheran aurrean ala atzean?**

■ Ni atzean joaten naiz. Bultzatzea eta kontrapisua egitea da nire lana.

Mikel Gomez Goitibeheretan afizionatua





XIX. SAN MIGEL LASTERKETA IRAILAREN 24AN EGINO DA

San Migel jaietan txirrindulari proba antolatu izan da, baina aurten astebete lehenago egingo da, hilaren 24an. Aurtengo edizio honek juniors mailako txirrindulariak batuko ditu, eta goizez eta arratsaldez korrituko da. Goizeko proba 10:00etan hasiko da Durana kalean, 60 kilometroren ondoren, Mendiolan amaituko da, 11:35ak aldera. Bigarren proba, barrez, erlojuz kontrakoa, arratsaldeko 16:00etatik aurrera hasiko da Durana kalean. Egin beharreko ibilbideak 10 km izango ditu, eta Aretxabaleta, Arrasate eta Almen artean banatuko da. Bertan sailkapen orokorreko lehen 21 txirrindulariek korrituko dute. Hiru tanda egingo dira, eta bakoitzean zazpi txirrindulari egongo dira. Txirrindulariek minuturo irtengo dute.

Futboleko denboraldia hasi da

Udako preferenteak pasa den asteburuan jokatu zuen denboraldiko lehen partidua. Enrique Nietoren mutilek kanpoan jokatu zuten, eta egia esan, denboraldiari ez zioten hasiera ona eman. Emaizta, Urola 2 Uda 0 izan zen. Hurrengo partidua domekan jokatu dute eta Mundarro izango dute aurrez aurre 4:30etik aurrera Ibarra futbol zelaietan.

Gainontzeko neurketak ere galdu egin zituzten herriko taldeek. Horien artean Euskal ligako jubenilek 4-0 galdu zuten Loyola Indautxuren aurka. Lehen jubenilen emaitza, barrez, Uda Almen 0 Segura 2 izan zen.

Gainontzeko taldeek beranduago ekingo diote denboraldi berriari. Hilaren 24an, esaterako, lehen partidua jokatu dute kadeteek.

Giro ederra Kurtzebarrin

Joan den domekan lagun ugari batu zen Kurtzebarri puntan urteroko zitara. Meza aurretik Felixen eta mendian hildako bazkideen alde ixilunea gorde zen. Gero Ramon Mari Elkorok zuzendu zuen meza.

Murruxikoren eskutik nahi haina edari eta janariz gozatzeko aukera izan zen, izan ere, ur freskoa, ardoa, freskagarriak, salda, txanpana eta baita, gazta eta txoria ere jarri zituen hurbildu ziren guztientzat.



■ ZERBITZU BERRIAK KIROLETXEAN. Ikarturte berriarekin batera kiroletxeak hainbat aldaketa izan ditu bere zerbitzuei dagokionez. Alde batetik, ordutegi berria dago. Lan egunetan lehenago irekiko da, 8:30ean, hain zuzen. Egurditan zabalik mantenduko da eta gaueko ordutegia ere luzatu egin da 21:30ak arte. Zapatutan ordutegia 9:00etatik 20:00era artekoa da, eta igande eta jaiegunetako 9:00etatik 13:00etara. Igerilekuari dagokionean eguerdian zabalik mantenduko da, eta astelehen goizetan 10:00etatik aurrera zabalduko da. Ordutegiaz gain kirol txartel berria izango dute bazkideek hemendik aurrera. Txartel horrekin, kiroletxearen zerbitzuen erabileraren kontrol zehatzagoa izan nahi da, urtean zehar zerbitzu batek zelako partaidetza izan duen jakitea, esaterako. Sarreran torno bat jarri da, beraz, aurrerantzean kiroletxera sartu ahal izateko txartel magnetikoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da. Abonatu bakoitzak kiroletxean jaso ahal izango du bere txartela. Berrikuntza hauez gain, kiroletxera doana bestelako aldaketez ere jabetuko da. Izan ere, kiroletxea goitik behera margotu da. Era berean, igerilekuan elbarri-tuentzako arrapala jarri da.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatu

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96



Mirianek urteak egin ditu Loramendi dantza elkarteetan, hasieran dantzari moduan, gero irakasle eta orain elkarteko batzordekidea da. Datorren asteburuan ospatuko den Haur dantzarien egunean antolatzaile lanetan arituko da.

Mirian Priego

"Dantzan ikastea gurago dut erakustea baino"



- **Dantzari gazte-gaztetatik.**
- Bai, hala da, bost urtekin hasi nintzen dantzan.
- **Eta geroztik dantzako arlo desberdinak ikutu dituzu.**
- Dantzaria eta irakaslea naiz eta orain taldeko batzordean nago.
- **Zer gurago dantza ikasle ala irakasle?**
- Beharbada dantza ikaslea izatea.
- **Zer egin behar izaten duzue dantza taldekook?**
- Haurren eguna antolatu, beste herri batzuetako haurren egunetan parte hartu, jaietan dantzatu...
- **Haurren egunak indarra galdu du?**
- Bai. Denborak aldatu diren moduan, herritarrek interesa galdu dute ekintza hauetan. Hori herri denetan gertatu da.
- **Zein da dantzarik gogokoena?**
- San Juan dantza. Horrez gain, muxikoak ere asko gustatzen zaizkit.
- **Beti mutil gutxi egon da dantzan, orain ere hala da?**
- Bai, talde gazteenetan baino ez daude mutilak. Nik uste dut denboraz beste interes batzuk sortzen zaizkiela.
- **Nagusien dantza taldea sortzearen ideia nola doa?**
- Ez daukat ahaztua. Jendea badago eta orain hastea gel-

- ditzen zaigu. Entsaio ordua eta eguna jarri eta kitto.
- **Dantzaz aparte, zer egiten duzu denbora librean?**
- Lagunekin egon, adibidez.
- **Udan, bestalde, Udalekutara, Bernedora joaten zara.**
- Bai, 11. urtea dut aurten. Monitore lanetan ibiltzen naiz.
- **Umeak atsegin dituzu hortaz?**
- Bai, 1. eta 2. urteko neska-mutikoak dira eta horiekin gustura aritzen naiz.
- **Baserriko ogia ala kalekoa?**
- Biak gustatzen zaizkit.
- **Ogirik egin duzu sekula?**
- Ez, eta ikasteko asmorik ere ez.
- **Ezkonduta ala elkarrekin bizi?**
- Elkarrekin bizi. Beharbada egunen batean ezkonduko naiz.
- **Baserria ala kalea?**
- Baserria, libertade gehiago eskaintzen du.
- **Animaliekin?**
- Bai, apur batzuekin bai. Gure baserrian ere denetik dago eta ohituta nago.
- **Bizitzeko leku bat?**
- Aukerarik izanez gero Arientzan.

PAGALDAI

**Opari denda
Lurrindegia**

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

BENGOA URDAITEGIA

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

Hies berria

943 79 26 99

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABAETA



Kirolari gogorak

Ez zaizue askori faltako eguneroko rutinara bueltatzea. Gehienok murgilduta gaude zeharo, batzuk lehenxeago eta beste batzuk oraintsu, baina denok hurrengo oporretarako egunak kontatzen hasita. Bizitza horrela da, batzuetan goxo eta bestetan krudel, batzuetan zuri eta beste batzuetan beltz eta guk datorrena datorrela, hartu egin behar.


Pasa den igandean esate baterako, zuri bezain urdin esnatu zen eguna atxabaltarrondako, oraingoan Murruxikokoek eguraldia ere enkargatu zuten antza. Bikain dena dela. Eguradia ez da beraien kontua, baina guk bai kriston hamarretakoa beraien kontura. Goiz xamar zen meza, eta esker-rak! Artean gerizpetan zegoen Elix barriko aldaitza eta samurtxoago igo izan nuen. Ez putzik bota barik, hala ere. Baina tira! iritsi nintzen salda hartzera eta koka kola lata hura ere edarki hartu nuen. Meza aurretik minutu bateko ixilunean mendian hildako lagunak gogoratu ziren. Meza ostean, barrez, gura haina txorizo, gazta, ardo, txanpain... bazen han non asetu. Elizkizuna **Ramon Mari Elkor** atxabaltarrak eman zuen eta bere aldame-

nean izan zuen aspaldiko **Aitta Migel** ere. Kanpoan da misio lanetan, baina opor-rak pasatzera etorria da.

Urrutiko lagunak bai baina bertakoak falta ziren. **Amaia Gaztañaga** eta **Josu Lanzosek** behintzat huts egin zuten. Agian balnearioren batera joanak ziren bolak soltatzera edo. Pirineoak alde batetik bestera bizikletaz gurutzatu ondoren zerbait behar ere bai, jakina. Erredio! Oporrak deskantsatzeko zirela entzuna nuen nik, baina akaso ez dugu denok deskantsuaren kontzeptu berdina. Begira bestela **Aitor Iturbe** eta **Roberto Agirre** ere, beste batzuk milioiak kobratuko dituzte Anglirur igotzearen eta hauek, pentsatu eta egin. Kostako zaio Olanori hauek bestean igotzea.

Bestela ezer askorik ez. Egun hauetan patata dela eta, ez dut asti handirik izan kalera ateratzeko eta ez naiz gauza gehiagotaz enteratu. Hurrengoan gehiago eta hobeto. Ah! baserritar jantzia topatzen ere hasi beharko dut San Migeletarako, gainera, iaztik kilo pare bat gehigo ere izango ditut, eta akaso, gerri aldean ikuturen bat egin beharra ere... (niri ez ehi soinekoari).

M. J. Arzak



Connemara gure bihotzetan

Julen Gabiria
Elkarlanean, 2000

Julen Gabiriaren lehengo nobela duzue hau. Neska laguna auto istripuz galdutako mutil batek bere neskalagunak diskete batetan idatzitako egunkariari jarraituz, irlandara eginiko bidaia baten berri ematen digu. Disketean neskak irlandatik eginiko bidaiaren berri ematen zuen. Bi bidaia kontatzen zaizkigu beraz : ez da bidaia turistikoa mutilarena, neskarena bai nolobait ; baina batez ere giza sentimendu eta nahasketetan barneratzen diren bidaiak dituzue biak.

Tonu erromantikoan habitzen den liburu honek nolobait itxura trajikoa ere hartuko du azkenerako eta sorpresa ugari eskeiniko dizkigu, beti ere ironia puntu batez.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Ze koilar politxa.
- Bai, ezta?
1000 pezetan erosi ~~naiz~~ Lekeition (txarto).
- Ze koilar politxa.
- Bai, ezta?
1000 pezetan erosi dot Lekeition (ondo).



Denetik

Motorra erosiko nuke.
Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi
metalikoak salgai.
Tel.: 666957983.

Kanpineko frigorifiko
berria salgai. 30.000 pta.
Tel.: 943 79 73 92.

Opel Astra GSI 115 cv sal-
gai. 1993. urtekoa.
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it.
Arraunekin, "cubrebañe-
ra" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 75 11/79 98
08 (Mikel).

Ford Sierra 2000 kotxea
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat
saltzen da. Bi urte ditu
eta oso zintzoa da.
Pedigri onekoa.
Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Boxer eta pastor aleman
arrazako txakurkumeak
salgai. Pedigriarekin.
Tel.: 696 057 346.

Gaixotasun arazoengatik

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.
Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.
Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien
ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko
honetan jarri nahi baduzu, deitu
943 79 86 21 telefonora
edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

negozioaz ezin garelako
arduratu, martxan dago-
en denda alokatzen da
Aretxabaletan.
Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordena-
gailu portatila erosiko
nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongela-
doran sartzeko.
Labeldunak eta natural
hasitakoak. Bildotsak ere
bai. Tel.: 689 541 861.

Roller karabana salgai.
Aurreko estalkiarekin.
Tel.: 943 79 46 84.

Peugeot 205 salgai.
Tel.: 943 77 16 03.

Etxebizitza

Andra Mari auzoan gara-
jea salgai. Tel.: 943 79 74
61.

Hornitutako etxe bat alo-
kagai dago Aretxaba-
letan. Etxe haundia da
eta erdialdean dago.
Tel.: 943 79 04 86.

Pisua salgai Aretxabale-
tan. Andra Mari auzoan.
943 77 13 02.

Aretxabaletan pisu bat
konpartitzeko bi neska
behar dira.
Tel.: 655700705 (Bego) /
944424120.

Garajea salgai
Murubiden.
Tel.: 943 79 88 15.

Langile bikote gazte bat
gara eta Aretxabaleta
edo inguruan errentan
hartzeko estudio edo
pisu txiki baten bila ari
gara. Tel.: 943 13 22 63.

Pisu bat konpartitzeko
gertu nago Iruinean.
Lekurik baldin baduzue
deitu: 943 79 39 10.

Garajea salgai/alokagai
Murubiden.
Tel.: 639418106.
(Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat
saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera
onean.

Etxe bat erosi nahi da
Aretxabaletan.
Tel.: 649 16 86 69.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-0-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

Lana

Zapatuetan korreoseko eskutitzak banatzeko pertsona bat behar da Aretxabaletan. Goizeko 9:00etatik 15:00era sei hilabetetan zehar. Interesatuak korreosetik pasatu.

Xaramela tabernan lan egiteko pertsona bat behar da.
Tel.: 943 77 11 92.

Portalak garbitzeko neska bat gertu dago.
Tel.: 676393642.

Aretxabaletan zabalduko den kafetegian lan egiteko zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. Hobe esperientziadunak.
Tel.: 600264164.


Neska jatetxea garbitzeko eta sukaldean laguntzeko gertu dago.
Tel.: 600 600 531.

Lan deialdi publikoak

Haur liburutegiko langilea. Oñati.
Epea: irailak 18.

Ingurumeneko teknikari lanpostua. Deba Goienerako mankomunitatea.
Argitaratze data: 2000/09/11.

Hutsik dauden zenbait lanpostu betetzeko deialdiak.
Arrasateko Udala:
Administrazio orokorreko teknikaria/Ingurugiro teknikaria/Emakumea-aukera berdintasunerako teknikaria/Ingurugiro eskolako irakaslea/Liburuzaina/Zerbitzuetako ikuskatzaillea/Gazte informatzailea/Elekttrizista/Udaltzainak (5)/Administrari laguntzailea/ Ekintza kulturaletako eta anitzetako operarioak (2)/Zerbitzu anitzetako operarioa/ Peoia.
Elbarrituentzako postua: administrari laguntzailea eta ordenantza.
Boen argitaratu ostein 20 egun naturaleko epea.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

PEOIA. Arabako lautada.
Erref.: 35984/4

GARBIKETAK EGITEKO LANGILEA. Arabako lautada.
Erref.: 35494/7

INPRESIOAK EGITEKO LANGILEA. Legutiano.
Erref.: 37463/3

ITZULTZAILEA. Arabako lautada.
Erref.: 33333/1

HANDLING OPERARIOA. Arabako lautada.
Erref.: 33327/4

FOTOKOPIAK EGITEKO LANGILEA. Gasteiz.
Erref.: 35193/1

60 ELEKTRIZISTA. Arabako lautada.
Erref.: 35160/2

IRAKASLEA. Arabako lautada.
Erref.: 33484/6

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:
Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33
Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90
Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

Debagoieneko komunikazio enpresa batek

TELEBISTAKO ERREDAKTORE BURUA

behar du

Erredakzio taldea zuzenduz, telebistako albiste zerbitzuen ardura izango du.

Eskatzen da:

- Kazetari izatea, telebistan esperientziaduna.
- Lantaldeak zuzentzeko gaitasuna.
- Euskarari eta ordenagailuen erabilera maila ona.
- Gidatzeko baimena eta autoa.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua mugagabeko bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Etorkizun handiko proiektuan partaide izatea.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali, irailaren 18a baino lehen, ondoko helbideetako batera:

estenibar@euskalnet.net edo 95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

ORAIN ARETXABALETAN ZABALIK



- INFORMATIKA (ofimatika: Windows, Word, Excel, Access)
- MEKANOGRAFIA
- INTERNET
- ENPRESENDAKO IKASTAROAK

Irailetik aurrera
Aretxabaletan aurkituko
gaituzu (Aralar, 6)

AURREMatrikula EPEA ZABALIK
Izena emateko telefono honetara
deitu: 943 77 11 06
Garibai, 6 B - 20500 ARRASATE

IRAILA

16, 17

■ PIRAGUA URTEERA

Murrukixo mendi elkar-teko piraguismo sailak piragua urteera antolatu du Gallego (Hueska) ibai-
ra.

17 DOMEKA

■ HAUR DANTZARIEN
EGUNA

Goizeko 10etan plazan hamarretakoa egin ondoren, dantzariak Herriko plaza, Gernika plaza eta Urbaltzeko plaza artean banatuko dira.



23 ZAPATUA

■ URBALTZ ELKARTEKO
BATZAR OROKORRA

Arratsaldeko 4:00etan lehenengo deialdia eta 4:30ean bigarren deialdia. Ostean afaria izango da.

24 DOMEKA

■ XIX SAN MIGEL TXI-
RRINDULARI
LASTERKETA

Bi proba izango dira. Goizean 10etatik aurrera 60 kmko ibilbidea. Mendiolan bukatuko da. Arratsaldean erlojuz kontrako proba 16:00etatik aurrera.



29, 30, 1

■ SAN MIGEL JAIAK

IKASTAROAK


■ BEINKE-LORAMENDI
DANTZA IKASTAROA

San Migel jaietako Beinke-Loramendi dantza ikasteko ikastaroa antolatu du Tril emakume taldeak. Ikastaroa eguazten eta eguakotxetan emango da Kurtzebarri eskolan 19:30etik aurrera. Ikastaroan partehartzeko beharrezkoa da 18 urtetik gorakoa izatea. Informazio gehiago gura izanez gero, Loramendi elkartera zuzendu edo deitu 943 77 09 70 telefonora.

■ TAILA IKASTAROA

Okila taldeak "hasiera mailako" taila ikastaroa antolatu du. 60 orduko iraupena izango du eta asteen hiru egunetan emango da. Urriaren 2an hasiko da, 6etatik 8etara Okila elkar-teak Murubiden duen lokalean. Izena emateko udal-etxean, kultur etxean edo Okila taila elkartearen lokalean (Murubide, 5) egin daiteke.

BALITZAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Ainhize Guisado
Abuztuak 19
(7 urte)
Familiako guztien
partetik zorionak.



Maite Errasti
Irailak 11
Familiako guztien
partetik zorionak.



Miren Zubizarreta
Irailak 11
Etxekoan partetik
belarritik tirakada
bat eta zorionak.



Andoni Antxia
Irailak 14
Familia guztia, eta
batez ere, Julen
eta Ioneren parte-
tik zorionak.



Anjel Bergaretxe
Irailak 14
Zorionak eta urte
askotarako.



Irati Zubillaga
Irailak 20
(4 urte)
Zorionak eta
muxu haundi bat
etxekoan partetik.



Markel Oskoz
Irailak 21
Zorionak eta
muxu haundi bat
etxekoan eta lagu-
nen partetik.

Atal honetan zorion agurrak argitaratu nahi izanez gero, Aretxagazetara zuzendu. (Durana, 11 2. solairua).

Txistuak • Txaloak

Txarto eindakuen aurrien, kejie eta kritikie ez da falta izaten gure herrixen. Ondo eindakuen aurrien, barrez, asko kostetan jaku akordau eta eskerrak emutie. Zorionez ondo eindakuek asko izeten die Aretxabaletan eta domekan izen gauen horreitako bat.

Egueldixe lagun, Kurtzebarriko egun ederra pasetako aukerie eskeini ozkuen Murrukixokuek hara arrimau gitzenoi.

Talde lana eta lanerako gogua nabarmen erakutsi dozkie Murrukixon azkenengo bolaran sartu dan jentiak. Ibilaldi neurtua, Kurtzebarri eguna... Mendizaletasunak ez dauko bildur haundirik holako lantaldiaz. Zorionak eta eskerrak asko zuen lanagaitik.



Jaiotakoak

■ **Ane Azkarate Quintana**
Abuztuaren 30ean.

Hildakoak

■ **Fidel Antxia Ezpeleta**
Irailaren 7an. 77 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



A

Koruetarrak Arantzazun

spaldiko urteetatik iraileko lehenengo astelehenean Arantzazura erromesaldia egiten da Aretxabaletatik. Aurten ere halaxe izan zen, batzuk autoz eta beste batzuk oinez hurbildu ziren bertara.

Garai batean, hala ere, guztiak oinez joaten ziren. Usadioari jarraituz 1954 edo 1955. urteko iraileko lehenengo astelehenak atxabaltar ugari batu zituen Arantzazun. Horien artean Koruetako taldetxo hau zegoen. Goizean

goiz irtenda guztiak oinez joan ziren Arantzazura. Hala ere, Koruetako eta Arientzako abadeak domekan joateko ohitura zuten. Baina hori bai guztiak ttipi-ttapa Urrexolako maldetan gora.

Argazkian goian ezkerretik eskumara: Galo Iturbe, Angel Zugasti, Cosme Errasti, Maritxu Errasti, Pakita Arando, Maria Pilar Urteaga, M^a Pilar Jauregi, Guadalupe Goikolea, Antonia Jauregi, Marilu Errasti.

Bigarren lerroan: Nikolasa Maskariano, Juana Arenaza, Miguel Leibar, Vicenta Ugarte, Jose Urkia, Bonifacio Arenaza (abarea), Flora Urteaga.

Beheko lerroan: Daniel Uribetxebarria, Jose Antonio Uribetxebarria, Jose M^a Leibar, Jose Luis Errasti, Felix Goikolea, Gabino Errasti, Jose Luis Iturbe.

Argazkia: Pilar Urteaga
Informazioa: Pilar Urteaga



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

Artano taberna

**Herriko
plazan
ARTANO**

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Gurea taberna

**Jatetxea eta
taberna**

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Izotz taberna

Zure gustoko giroa

**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Arlutz taberna

ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TENDA, 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Lauxitta taberna



**Pintxoak, bokatak,
hanburgesak...**

Lauxitta, 4
943 79 29 36

Mendiola erretegia

ESKORIATZA
Tfno 714 345
ERRETEGIA
MENDIOLA

*Bazkariak
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
© 943 79 24 58
ARETXABALETA

Amets taberna

AMETS

Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29
Aretxabaleta

Mitartegarai

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Josu harategia/taberna

**Josu
harategia
taberna**

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri

**Taberna Berri
jatetxea**



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behe
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

sofa
leku

a. eme... interiores



centro
hogar
muebles

grupo



Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92